

## Tortila handia



Gaur Gontzal mandatuak egiten ari da amarekin. Supermerkatura doaz eta Gorka ere hantxe dago.

—Kaixo, Gorka Zer moduz? —esaten du Gontzalen amak.

—Ama, Gorkarekin joan nahi dut! —dio Gontzalek.

Amak baietz esaten dio, baina arraultzeak eta txokolatea behar ditu:

—Erosi txokolatea eta arraultzeak.

—lupi! Goazen, Gorka! Gorkak txokolatea ikusi du eta Gontzali esaten dio:

—Hor dago. Hartu tauleta bat!

—Ez, hori ez zait gustatzen eta gainera oso garestia da. Begiratu prezioari — esaten du Gontzalek.

—Egia da. Hiru euro balio du.

Gorka beste apalategi batera joan da eta han beste tauleta bat txokolate ikusi du.

—Gontzal, hau gustatzen zaizu? Eskaintzan dago eta merkea da.

—Bai. Hori nahi dut. Hartu, hartu! Orain arraultzeak falta dira.

Bapatean, Gorkak ikusi ditu eta esaten du:

—Begira, han daude! Hartu dozena bat eta goazen zure amarekin.

Baina gure Gontzal nahiko traketsa da eta ez ditu goiko arraultzeak hartu.

Behekoak hartu ditu eta ... KRAK! Arraultzeak lurrera erori dira eta Gorkak esaten dio:

—Ederra egin duzu! Arraultze guztiak apurtu dituzu.

—Goazen hemendik! Hau lotsa!



## TORTILA HANDIA

### Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zertan ari da Gontzal? Eta, norekin?

.....

2.- Nora doaz Gontzal eta bere ama?

.....

3.- Nor dago supermerkatuan?

.....

4.- Norekin joan nahi du Gontzalek?

.....

5.- Zer behar du amak?

.....

6.- Nolakoa da lehen txokolatea?

.....

7.- Zenbat balio du?

.....

8.- Nolakoa da bigarren txokolatea?

.....

9.- Nolakoa da gure Gontzal?

.....

10.-Zer egin du Gontzalek?

.....

## Tortila handia (Hiztegia)

Erosketak	.....	Merkea	.....
Oiloa	.....	Garestia	.....
Kiloa	.....	Berezia	.....
Apala	.....	Gosea	.....
Kutxa	.....	Egarria	.....
Otartekoa	.....	Irentsi	.....
Botila	.....	Limoia	.....
Supermerkatua	.....	Bezeroa	.....
Apala	.....	Eskaintza	.....
Gazta	.....	Paketea	.....
Gatza	.....	Tauleta	.....
Esnea	.....	Azukrea	.....
Txorizoa	.....	Irratia	.....